

Euskal AEko enplegu-tasak (%67,2) gainditu egiten du EB-27ko herrietako batez bestekoa

Hori gorabehera, *emakumeen enplegu-tasa (%57,3) artean ez da gure esparruko herrien batez bestekora iristen (%58,3)*

Euskal AEko enplegu-tasak, %67,2, EB-27 herrien batez bestekoa, %65,4, gainditzen zuen Eustatek dituen 2007 urteko datuen arabera, hau da, lurralde esparru horietan konparazioak egiteko eskura dauden azkenak, alegia. Espainiari zegokion enplegu-tasa urte horretan %65,6 zen.

Danimarka (%77,1), Holanda (%76,0), Suedia (%74,2), Austria (%71,4) eta Erresuma Batua (%71,3) ziren enplegu-tasarik altuenak zituzten esparru honetako herriak. Kontrako aldean zeuden Malta (%55,7), Polonia (%57,0), Hungaria (%57,3), Italia (%58,7) eta Errumania (%58,8), adierazle honi dagokionez azken postuak okupatuz.

1995-2007 aldiko datuak erkatzen badira argi geratzen da urte horietan goitik beherako aldaketa gertatu dela, adibidez Euskal AEk zuen enplegu-tasa %48,5 zelako 1995ean, tasa hori %57,5 zelako 2000n eta %67,2 2007an, azken urte horretan EB-27ko herrien batez bestekoa gaindituz. Ordea, Espainian portzentaje horiek hurrenez hurren %46,9, %56,3 eta %65,6 ziren eta EB-27 eratzen duten herrien artean batez bestekoa adierazle horretan %62,2 zen 2000 urtean eta %65,4 2007an.

Enplegu-tasa (%) EB-27n (1995-2007)

	1995	2000	2007
EB-27		62,2	65,4
Germany	64,6	65,6	69,4
Austria	68,8	68,5	71,4
Belgium	56,1	60,5	62
Bulgaria	:	50,4	61,7
Cyprus	:	65,7	71
Denmark	73,4	76,3	77,1
Slovakia	:	56,8	60,7
Slovenia	:	62,8	67,8
Spain	46,9	56,3	65,6
Estonia	:	60,4	69,4
Finland	61,6	67,2	70,3
France	59,5	62,1	64,6
Greece	54,7	56,5	61,4
Holland	64,7	72,9	76
Hungary	:	56,3	57,3
Ireland	54,4	65,2	69,1
Italy	51	53,7	58,7
Latvia	:	57,5	68,3
Lithuania	:	59,1	64,9
Luxembourg	58,7	62,7	63,6
Malta	:	54,2	55,7
Poland	:	55	57
Portugal	63,7	68,4	67,8
United Kingdom	68,5	71,2	71,3
Czech Republic	:	65	66,1
Rumania	:	63	58,8
Sweden	70,9	73	74,2
A. C. of Euskadi	48,5	57,5	67,2

Emakumeen enplegu-tasari dagokionez Euskal AEkoa, %57,3, asko hurbildu zaio EB-27ko herrietako batez bestekoari (%58,3). Ildo horretatik esan daiteke adierazle horren bilakaera azken urteetan nabarmena izan dela Euskal AEn, 1995 urtean %34,4 zena %43,0 zelako 2000.ean eta %57,3 2007.an

Europako Iparraldeko herriak ziren, 2007an ere, atal honetan lehen tokietan zeudenak: Danimarka (%73,2), Suedia (%71,8), Holanda (%69,6) eta Finlandia (%68,5). Kontrako tokietan zeuden Malta (%36,9), Italia (%46,6) eta Grezia (%47,9), herri horietan zirelako baxuenak emakumeen enplegu-tasak. Gogoan eduki behar da Espainiak %31,7ko portzentajea zuela 1995ean, %41,3 2000n eta %54,7 2007an, hau da, artean EB-27ko herrien batez bestekotik urrun.

Halaber, interesgarria da azpimarratzea Euskal AEn 2007an 55 eta 64 urte arteko biztanleen kasuan zegoen enplegu-tasa %41,2 zela, EB-27n (%44,7) eta Espainian (%44,6) egon dauden batez bestekoak baino baxuagoa.

Informazio gehiago:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 62 Helbide elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Manu Riveiros

Tel.:+34-945-01 75 62 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak interneten: www.eustat.es